Enpresagintza Fakultatea

Aktualitatea

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusean Kepa Acero surflariak bere proiektuak eta grina lanarekin nola uztartu azalduko du hitzaldi batean.

2012/12/17

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusean, Kepa Acero surflariak azken bidaiez eta proiektu berriez hitz egingo du, datorren asteazkenean —hilak 19—, 18:00etan. Doako berbaldi horrek zaletasun handi bat lanbide nola bilakatu azaltzeko helburua du, eta leku kopuru mugatu du, ehun pertsona gehienez, eta interesatuak email honetara mezu bat bidali behar dute: mmsurf@eteo.mondragon.edu. Epea, azteazkenean goizean amaitzen da. Mondragon Unibertsitatearen Turismo Aktiboko Masterraren eta Surfaren Marketineko Ikastaro Aurreratuaren barruan txertatuta dago.

Kepa Acerok, hasteko, bere ibilbidearen laburpentxo bat eskainiko du, amets eta grinak lanbide nola bihurtu zaizkion azaltzeko. Segidan, Azken Muga - Última frontera bideoaz baliatuta, Alaskatik Patagoniara bakarrik bidaiatzeko proiektua aurkeztuko du. Surfaren alderdirik gizatiarrena, adiskidetasuna, abentura, bakardadea… erakutsi nahi ditu.Izan ere, Kepa Acerorentzat naturarekin ez ezik beste kultura batzuetako pertsonekin ere hartu-emanetan egoteko bitartekoa da surfa. Horrela, beste hedadura bat hartu du kirolak: beti bizkar-zorroan eramango duen giza bizipen izatea.